

IZAGALDEAKO EUSKARA ZERBITZUKO HAUR ETA GAZTE IPUIN LEHIAKETA 2020

Gaia librea da.

Honela aurkeztu daiteke: idatziz, Urrotz-Hiriko udaletxean, Sto Tomas 5, 31420; emailen bidez euskara.izagaldea@gmail.com

1. Baldintzak:

- Ipuina euskaraz idatzita egon behar da.
- Jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan behar du.
- Ipuinak, gehienez ere, 300 hitz izanen ditu.
- Egile bakoitzak ezin izanen du lan bat baino gehiago aurkeztu.

2. Kategoriak:

Haurrak: 12 urte arte

Gazteak: 12-16 urte

3. Non eta nola aurkeztu

Idatziz aurkeztuz gero, word formatuan eta orrialde bakarrean izan behar da eta udaletxeko, Urrotz-Hirian, postontzian sartu edo postaz bidali.

Bi gutun-azal behar dira:

- Lehenengoa (A): kanpoan ezizena eta barnean ipuina eta bigarren gutun-azala sartu.
- Bigarrena (B): kanpoan ezizena eta kategoría jarri, edo adina, eta barnean izen-abizenak, helbidea, telefonoa, ikastetxea (nahi izanez gero) eta ikasmila.

4. Noiz aurkeztu

2020ko ekainaren 22a arte (egun hori barne).

5. Epaimahaia

Euskara teknikariak eta bi hautetsi edo hauek izendatutako idazle/irakasle osatuko dute.

6. Sariak

Ipuinak kategorien arabera sailkatuko dira eta ondoko sariak banatuko dira:

* 12 urtetik 16 urte arte: **1. saria: 100€**

2. saria: 75 €

* 11 urte baino gutxiago: **1. saria: 75€**

2. saria: 50€

7. Ebazpena eta sarien banketa

Ebazpena uztailaren 1ean argitaratuko da. Sarien banaketa, Urrotzeko liburutegian, aurrerago finkatuko dugun egunean .

8. Saritutako lanak **Izaga** aldizkarian argitaratu izan daitezke

9. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

10. **Parte hartzen duten guztiek oparitxo bat jasoko dute, sari banaketaren egunean.**